

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

**Aiarako Udaleko alkateak emandako 2021eko urriaren 27ko Dekretuaren laburpena, zeinak onesten dituen EAeko udal kiroldegietako 2021eko kuotak ordaintzeko familientzako dirulaguntzen deialdia**

DDBN(Identif.): 592249

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/592249>).

#### **Lehenengoa: Onuradunak**

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean Aiara udalerrian erroldatuta daudenak, baldin eta, diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan erroldatuta egon badira Aiara udalerrian, eta oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

Dena den, adingabeen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

#### **Bigarrena: Xedea**

Deialdi honen xedea da Aiarako udalerrian erroldatuta dauden pertsonen EAeko edozein udalerritako udal kiroldegiko bazkide izateagatik, banaka nahiz familian, ordaintzen dituzten 2020ko kuoten gastuak ordaintzen laguntzea, baldin eta jarduera horiek Aiarako Udalak eskaintzen ez baditu.

Ez dira barne sartuko instalazio haietan egiten diren kirol jarduerak edo bestelako erabilerak.

#### **Hirugarrena: Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak alkatearen urriaren 27ko 636/2021 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta, ondoren, ALHAOn argitaratu.

Laguntza horien oinarri arautzaileak jasota daude deialdi honetan eta EAeko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan, zeina Aiarako Udalak onartu eta ALHAOn argitaratu baitzen 2020ko urtarrilaren 27ko 10. zerbakian.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus).

#### **Laugarrena: Zenbatekoa**

Deialdia 6.000,00 euroekin dago hornituta.

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: udalak edo haren mendeko erakundeak udalerririk horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100.

#### **Bosgarrena: Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hogeita (20) egunekoa izango da oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.

**Seigarrena: Beste datu batzuk**

Eskaeraren eranskin guztiak beteta aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2021eko urriaren 27a

*Alkatea*

*GENTZA ALAMILLO UDAETA*